



Yeray gaztearen aldeko elkartasun-eguna

Andoingo hamahiru urteko gaztearen tratamenduan laguntzeko ekimen-sorta zabala izango da larunbat honetan, Andoingo Zumea plazan / 4-5

Legegintzaldi-plana

Urnietako Gobernu taldeko EAJ-PNVk eta PSE-EEK bide-orria aurkeztu dute / 8-9

Olatz Odriozola
urnietarra,
Gipuzkoako
ziklo-kros
txapeldun berria / 10

Adarramendira gaez
igotzeko irteera
antolatu du
Zanpatuzek,
hilaren 22rako / 11

Ezagutu gaitzazu!

EGAPE IKASTOLA
urnietarron
ikastola publikoa

ESKURATU INFORMAZIOA

943009275 (HLH)
943899425 (DBH)

online formularioa

www.egape.eus

ASPILLA
ekoizpen ekologikoa

677 110 541 - aspilla.eko@gmail.com
f Aspilla Eko

Babeslea:
egunen berri?

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



GORA ETA BEHERA



Auzotarren ekimena

Beste behin ere, Errekalde kaleko bizilagunek lortu dute: eder, apain dago Errekalde kalea. Gabonetako elementuekin hornitu dituzte kaleko paretak, zuhaitzak eta zuhaitz ondoak. Hainbat negozio daude kale horretan, eta, horregatik, herritarren joan-etorria handia da. Gaztelo gozotegia eta Muazpi harategia, esaterako, bertan dira. Bizilagun talde baten ekimenari esker, kalea Gabon giroan murgildu da.



AIURRI



ARREGI

Joxinixio Etxeberria gudaria gogoan hartu zuten

Abenduaren 6arekin, Andoaingo Batzokiak mendi-irteera eta bazkaria antolatzeke joera du. Aurtengoan, Goiburuko Joxinixio Etxeberria gudaria gogoan izan zuten. 2022an, Buruntzan jarritako ikurriñari omenalditxo egin zioten. Aurtengoan, berriz, Aizkorrikora abiatu dira. Bertan dago Joxinixio Etxeberriaren omenezko mezu bat, harri batean zizelkatuta. Denborarekin galtzen ari denez, bertan plaka bat jarri dute jeltzaleek. Ez da edozein mezu. Goiburu auzoko Urrizti baserriko seme Agustin Zinkunegik Merdillegi baserriko Joxinixio Etxeberriari eskainitako bertsoa da. Biak ala biak, gudariak, burkide izan ziren 1936ko Gerran. Hauxe da Andoaingo EAJ-PNVko bazkideen oroigarrian jasotako bertsoa:

Joxinixio, oroitarrian
 bear zenduke izena,
 jel-zale ziñan bete-betean,
 gizon piña ta zuzena.
 Artxanda artan jokatu zendun
 ordu latz eta beltzena:
 "Il naiago det ikusi baiño
 aberriaren atzena".

KORRIKA 2024

Arropa, petoa eta beste hainbat produktu, eskura

Euskararen aldeko hitzordu ezagunena da Korrika, eta 2024ko martxoan Euskal Herrian barrena ibiliko da. Andoaingo AEK euskaltegian materiala erosteko aukera dago, baita on line ere. Aukera zabala dago: Kamisetak, jertseak, kapelak, petoa, legginsak, botilak, motxilak...



AIURRI

www.aiurri.eus

AIURRI
 BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



- Iritzia
- Postontzia

Bekoplaza berreskuratzea erabaki dute andoaindarrek

Bekoplaza txukuntzea, Basteroko auditorioan eserleku berriak jartzea eta toki publikoetan desfibriladoreak jartzea izan dira boto gehien jaso dituzten proposamenak. Andoaingo Udalak horiek martxan jartzeko prozedurari ekin dio

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Partaidetzazko aurrekontuen edizioa amaitu berri da, herritarren botoen zenbaketarekin. Hamalau proposamenen artean herritarrek hiru aukeratu behar zituzten eta 3, 2 edo 1 puntu eman behar zizkieten hiru proposamen horietako banari. Behin emaitzak jasota, Udalak hiru proposamen bozkatuenak nabarmendu ditu. Hots, Bekoplazaren berreskurapena, Basteroko eserlekuak egokitzea eta toki publikoetan desfibriladoreak jartzea. Andoni Alvarezek asteazken eguerdian eman zuen prentsurrekoan hiru proposamen horiei bidea emateko prozedurari ekingo diola iragarri zuen. 2024ko Udal aurrekontutik 250.000 euro bideratuko dira hiru egitasmoak gauzatzeko hasteko. Bekoplaza berreskuratzeko, lehenik eta behin, azterlan teknikoa egin behar da. Hiri-gintza edota ingurumen aldagaiak kontuan hartu behar direnez, txosten teknikoa lantzeko dirupartida bideratuko da.



Alkain (PSE-EE), Lasa (EH Bildu), Andoni Alvarez alkatea, Goiatz Salvador prozesuaren dinamizatzailea, Goenaga (EAJ-PNV) eta Iparragirre (Elkarrekin Podemos). AIURRI

Basteroko auditorioko eserlekuak zeresana eman dute, urteotan, eta, bereziki, XX. urteurrenako ekitaldi-sortan. Horren eraginez edo, herritar askoren botoa eserlekuak aldatzearen alde agertu da. Bekoplazarekin egin bezala, Andoaingo Udalak prozedura abiatzeko beharrezko txosten teknikoa garatuko du. Izan ere, eserleku guztiak aldatzea egitasmo han-

di samarra da, teknikoki zein ekonomikoki.

Errealitate bilakatu daitekeena, azkar batean, toki publikoetan

AURREKO BI EDIZIOETAKO PARTAIDETZA NABARMEN IGO DA AURTEN

tan desfibriladoreak jartzeko proposamena da. Hirugarren proposamen horrek, beraz, argia ikus dezake laster.

Botoetan ere kopuru nabarmena jaso dute honako hirurek: "Ikasgela" irekia egitasmoa, OKM produktuen salerosketa sustatzea eta Dr. Huitzi kaleko irisgarritasuna hobetzea. Andoaingo Udalak herritarren botoetatik jasotako proposamenak kontuan hartuko dituela adierazi du.

Inoizko parte hartze handiena

"Andoaingo 2024ko partaidetzazko aurrekontuen fasean parte hartzea nabarmen igo da, eta hori da aurtengo esperientziatik azpimarratu beharreko lehen ondorioa. 2023ko honetan, informazio-puntua jarri da kalean eta, horrez gain, 16-18 urte bitarteko gazteekin lanketa berezia egin da ikastetxeetan. Horri esker, lehen fasea inoizko parte hartzaileena izan zen. Bigarren fasean ere orain arte ezagutu gabeko partaidetza datuak jaso ditugu", adierazi zuen Goiatz Salvador dinamizatzaileak.

"Prozesua amaitu aurretik, ordea, eskertza adierazi nahi dut, Andoaingo Udalaren izenean, prozesua bideratzen aritu diren eragile guztiei. Lehenik eta behin, erantzun bikaina eman duten herritarrei. Nola ez, prozedura zaindu eta proposamenak jaso eta aztertu dituzten udal teknikariei eta baita partaidetzazko aurrekontuen prozedura bide-

378 bototik, 184 online bidez jaso dira

Aurtengo prozesuaren bigarren faseko datuak eskaini ditu Andoaingo Udalak. Bizi dugun aroaren adierazgarri da, besteak beste, internet bidez jasotako boto kopurua. Ia botoen erdiak Andoain.eus webgunetik iritsi dira.

Gaurko, botoa emateko bi aldaerak garrantzitsuak dira. Boto fisikoari dagokionez, Allurralde kiroldegian jaso dira gehien-gehienak. :

• Kiroldegia	70 boto
• Udaletxea	40 boto
• Bastero	35 boto
• Liburutegia	22 boto
• Arrate	15 boto
• Urigain	6 boto
• Anbrosia Olabide	5 boto
• Gazte Lokala	1 boto
• On-line	184 boto
• DENERA	378 boto

ratu duen enpresari eta haren dinamizatzaileari".

Aurtengo edizioa denbora-tarte laburragoan egin da, hauteskunde-urtea izanik. Udalak aditza eman duenez, edizio berriari pentsatzen ari da honezkero.

Erabili meloia

Gorde erosketa-tiketa

Kontsumitu buruarekin

#KontsumitzenJakin

kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Euskadi, argalana, bien comin

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

www.kontsumobide.eus



Patricia, Yeray eta David Karrika auzoari oso lotuta daude. Oso eskertuta daude auzotarrak erakusten ari diren elkartasunagatik. YERAYREN FAMILIA

Hazten jarraitu nahi du Yeray gazteak

Bizitzan aurrera egiteko laguntza premian da Yeray gaztea. Osasun Publikoak beharrezko tratamendua behin-behinean ukatu dionez, Karrikako auzotarrek elkartasun-festa handia antolatu dute

Xabier Lasa ANDOAIN

Yeray hesteetako malformazioarekin jaio zen eta horrek normaltasunez haztea eragozten dio. Hazkunde hormonak behar ditu mediku espezialisten iritziz, baina Osakidetzak ezezkoa eman dionez, osasungintza pribatutik ekin dio tratamenduari familiak. Elkartasun eguna antolatu dute Karrika auzoko bizilagunek, Zumea plazan, larunbatean.

Yeray izenak "sendoa", "handia" esan nahi du Kanariar Uharteetako guantxeen hizkun-

tzan. Eta ezin egokiago datorkio izena 13 urteko mutikoari, historial kliniko beldurgarriari egin baitio aurre hasiera-hasieratik gaurdaino. Dagoeneko 12 ebakuntza gainditu ditu; azkenekoa, iaz, bularra goitik behe-

LARUNBAT HONETAN EGUN OSOKO ELKARTASUN EGUNA OSPATUKO DA ZUMEA PLAZAN

ra ireki, eta hesteak atera eta berriro sartu zizkioten. Hiru hilabetero, Madrilgo La Paz ospitalean azterketak egiten dizkiote, eta, zenbaitetan, ingesatuta geratu behar izaten du. Astean sei gauetan, litro eta erdiko likidoa injektatu beharra dauka zainetatik, eta 10 ordu irauten du elikatze parenterala deitzen den jardun horrek; aparte, makina bat sendagarri hartu behar ditu egunero.

Normaltasunetik ezin urrunago dagoen bizimodu horretan

murgilduta, halabeharrez, bere adineko edozein gazteren bizitza egin nahi izaten du Yerayk, gogotsu; lagunekin-eta jolastu nahi izaten du edo kirola praktikatu, gorputzeko indarrek uzten dioten neurrian.

Patricia Martin nahiz David Rodriguez gurasoek eta hirurak Karrikako taberna batean jarrita zeukaten hitzordua Aiurriekin astelehen arratsaldean. Amak eta Yerayk, ordea, ezin izan dute iritsi garaiz. Arrazoia sinplea bezain ulergarriagatik: mutikoak eskola egun ugari galtzen ditu derrigor, eta horiek berreskuratzeko ikastetxeak eskaintzen dizkion eskolaz kanpoko ordu horietako batean geratu behar izan du; handik atera, eta gimnasioan lagunekin pittin bat geratzeko aukera eduki duenez aspaldiko partez, hantxe tartetxo bat egin du.

Horrenbestez, aitak eman dizkigu Yeray mutikoaren aparteko kasuari lotutako azalpenak, jatorritik hasita. "Haurdunaldiko hamabigarren astean, sa-beleko horma gaizki itxi zen,

HESTEETAKO GAITZA DU YERAYK, ETA TRATAMENDU GOGORRA BEHAR DU AURRERA EGITEKO

zulotxo bat sortu zitzaion, eta hortik ihes eginda, hesteen zati bat haurraren sabeletik kanpo geratu ziren; likido amniotikoan flotatzen geratu ziren. Gastroquisis-a deitzen zaio malformazio horri".

Yeray jaiotzen zenean operazio txiki bat nahikoa izango zela adierazi zieten medikuek Martini eta Rodriguezi. Konplikatu egin zen dena, baina, haurra mundura etorri orduko. "Zirujauak dena barrura sartu zion, baina horretan, zati bat hondatuta zeukala ohartu ziren; horrela, ebakuntza eginez, zati bat sartu eta bestea kendu egin zioten. Yeray hilabetez zainketa intentsiboko unitatean eduki zuten, eta epe horretan hestetatik soilik 40 zentimetro zeukala sano diagnostikatu zioten. Hil ala bizi, helikopteroz Madrilgo La Paz ospitalera eraman zuten, eta bigarren ebakuntza egin zioten. Hortik aurrera, tratamendu berezi-berezi bat ezarri behar izan zioten, bizitzen jarrai zezan, gaur egun ere irauten duena. Pertsona helduek seizazpi metroko hesteak izaten ditugu, eta haurrek bizpahirukoa. Bada, Yerayk, kasik heste-lodia eta heste-meharra dena galduta dauka, eta 40 zentimetrokoarekin bizi-irautea egokitzen zaio. Normaltasunez elikatzen da, baina bere hesteek ez dute irens-

ten sabelean sartzen duen guztia, eta horrela, hustubide bat balu bezala funtzionatu du bere barruak; berehala husten du dena, eta ez dio ematen denbora gorputzari nutrienteekin elika dadin. Horregatik, gauero, elikagaiak (seruma) zainetatik sartu behar izaten du, tantaz-tanta”.

Bizitzari gogor erantzuten dion mutikoa

Yerayk egunerokotasunak marcatzen duen bizi-erritmoari duintasunez eta tinko eusten diola ziurtatu du aitak. “% 67ko elbarritasuna dauka. Ez dauka gorputzeko edozein zati hondatuta, bizi-organo bat baizik. Hura gabe, ezin bizi daiteke inor. Helduen kasuan, ezintasunaren aitormen ofiziala deklaratu edukiko genuke zalantzarik gabe; gora behera gutxiko bizi martxa eramango genuke, arduretatik eta obligazioetatik nahiko aske. Berak, ordea, eguneroko errutinari erantzun behar izaten dio (eskola, eskolaz kanpoko ekintzak...), ezohiko tratamendu latzari aurre egiteaz gain, eta mirestekoa da hori. Sufritzea egokitu zaio, eta gorputza ahula eduki arren, burua ondo moldatzen ari da, zentzuduna da oso. Nortasunez, jendartekoa da, eta garatu ditu giza-trebeziak...”.

Aita-amak eta Yerayk, bat eginda egiten diotela aure egoerari aitortu du Rodriguezek. “Bizi dugun egoerari filosofia baikorrekin aurre egiten saiatzen gara, egunez egun. Arian-arian, elkarri laguntza emozionala eta psikologikoa ematen ikasi dugu. Hiruok dauzkagu gora-behera emozionalak, beldurrak, antsietatea, tristezi-aldiak... eta saiatzen gara batak besteari animoak ematen eta babesten”.

Hazteko hormonon premia

Yerayk metro eta 30 zentimetro neurtzen du eta 27 kilo pisatzen du, egun. “Urtearen hasieran, Madrilgo medikuek hazkunde hormonekin hasi gintezkeela iradoki ziguten, Yeray pubertaroan sartzera zihoanez gero. Pittin bat altueran haz zedin, egokia izan zitekeela tratamendua. Donostiako medikuek ere onetsi zuten gomendia, gaian espezialistak diren gastroenterologoak eta endokrinologoak barne. Azken horrek egin zuen aldeko txostenarekin egin zi-



Jende ugari ari da arropak eta jostailuak dohaintzan uzten, Karrikako auzotarrek bertan ireki duten egoitzan. Argazkian, Euan Garcia, Letxu Garcia, Leire Pinilla, Julio Pinilla eta Nerea Herrero. AIURRI

tzaion eskaera Osakidetza zuzendaritzari, halako erabakiak hartzen dituen epaimahaiak balora zezan. Familiaren eta Yerayren kasua ezagutzen duten profesionalen harridurarako, ezezkua izan zen erantzuna”. Endokrinologoak, bigarren txostena osatu zuen, eta bi datu azpimarratu zituen bertan. “Batetik, epaimahaiak erantzuna emateko hartu zituen bost hilabeteetan Yeray ez zela hazi deus. Eta bestetik, denbora horretan hartu zuen farmakoa ez zela bateragarria hazkunde hormonekin; alegia, kendu zitekeela, eta bere ordezkari hormonen tratamendua ezarri; gastuen ikuspegitik, berdin ateratzen zelarik. Bada, ezezkua jaso genuen bigarren aldiz. Orain sei hilabete izan zen hori”.

Errekurtsoa jarri zuen familiak berehala, eta haren zain daude. “Ezezkua jaso dezakegu beste behin, eta isiltasun administratiboari heldu diezaioke, baina, bien bitartean, ezin gintezke besoak gurutzatuta gelditu. Yeray orain dago hazteko bizi-roan. Horregatik heldu diogu hormonek alternatibari, kosta ala kosta, osasungintza pribatutik”.

Bada, Poliklinikara jo zuten, eta hango profesionalen esku utzi zuten beren kasua. “Bidezko zela esan ziguten han, eta uztailean hasi ginen tratamen-

duarekin; hilero egokitzen zaio ziztada. Hasiz geroztik, begibistakoa da Yerayk izan duen hobekuntza: hiru zentimetro hazi da jada, 1,27tik 1,30era igaro da. Eskasa irudituko zaio jendeari egoera normal baterako, baina izugarria da hesteetako patologia mota hori daukan gazte batentzat, oraindik hazteko adinean dagoen gazte batentzat”.

Irizpide ekonomikoak, aurretik

Osasun irizpideekin baino gehiago, murrizketa ekonomikoekin duela zerikusia Osakidetza erabakiak, iruditzen zaio familiari. “Bulego batean dauden pertsonen esku dago azken erabakia. Gustura jarriko ginatke tribunal horren aurrean Yerayrekin, eta azaldu zein den bere osasun arazoa, baina ez da posible. Inpotentzia handia sentitu ohi da, humanitaterik gabeko burokraziarekin topo egiten duzunean... Argi daukagu administrazio publikoak ahalegin ekonomiko hori egin zezakeela, are gehiago medikuntzako profesionalen oniritzia eduki eta gero”.

David Rodriguezek Yerayren heldutasun maila azpimarratu nahi izan du, azken hilabeteetan hiruek elkarrekin hartu behar izan dituzten berebiziko erabakiekin: “Daukan gaixotasunaz

jakitun da, zailtasunak zaildu egin baitu mutila. Egoera den bezala azaldu izan diogu, argi eta garbi, aldeko eta kontrako guztiekin, eta berak nahi izan du hormonon irtenbidea probatu. Ulergaitza egiten zaio tribunalarren jarrera, baina berak erabaki du daukagun aukerarekin aurrera egitea. Hala jakituko dugu hemendik aurrera ere, konfiantza osoa daukagula bere zentzumen onarekin”.

Esker oneko, elkartasun uholdearen aurrean

Patricia, David eta Yeray pozez ezin kabiturik daude ikusita Karrikako auzokideak nola ari diren adierazten elkartasuna. “Gu konturatzerako, dena antolatuta zeukaten! Benetan ez dakigu nola eskertu egiten ari diren guztiagatik. Karrika auzo langilea izan da beti, umila, eta beste askotan bezala, orain ere erakusten ari da zenbateko humanitatea eta elkartasunerako grina daukan. Harro gaude auzo honetako kide izateaz”.

KARRIKATIK JASOTAKO LAGUNTZAREKIN ESKERTUTA DAGO FAMILIA

Egun osoko egitaraua, larunbatean

“Yerayrekin bat eginez”, egun osoko egitaraua prest dute. Zumea plazan izango da, larunbat honetan.

10:00 Azokaren irekiera (egun osoan irekita).

11:00 Tiktok erakustaldia, Zunbalokuraren eskutik.

11:15 Txikientzat aurpegi margoketa, marrazki tailerra eta eskulanak.

11:30 Zumba salto.

12:00 Talo, sagardo eta pintxo salmenta.

12:30 Peppermint Sextet taldearen kontzertua.

15:30-17:00 DJ Ezekiel.

17:00 Zunbalokura.

18:00 Taloak, sagardoa eta pintxo salmenta.

Zozketak iragarri dituzte. Eta, bestalde, Euskalduna futbol taldearen maskotarekin argazkiak ateratzeko aukera izango da. Bestalde, aipatzekoak dira beste zenbait ekitaldi, Yerayrekin elkartasuna adierazteko; hala nola:



- Keinuk egin eta Urratsek irudia jarri dio zorroari. Elkarlanean egin, elkartasuna adierazteko.
- Karrika auzoan egoitza (goizez eta arratsalde) bigarren eskuko arropa eta jostailuak biltzeko.
- Herriko hainbat tabernetan dirua biltzeko eltxetxoak jarri dituzte.
- Lasarte-Oriako Sansilbestre lasterketaren aurretik pintxo-ponte solidarioa antolatu dute.



EAJ-PNVko eta PSE-EEko zinegotziek aldeko botoa eman zuten Irudian, bozketa-unea. YOUTUBE

Legegintzaldi planari bidea eman diote

2023-2027 agintaldiari dagokion bide-orria zehaztu du EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiek osatzen duten Urnietako Udal Gobernuak. EH Bildu aurka agertu zen, haien parte-hartzea ez zela kontuan izan argudiatuta

Jon Ander Ubeda URNIETA

"Legegintzaldi Plana Urnietako Udaleko Gobernu Taldeak datozen lau urteetan izango duen jarduera politikoa planifikatzen duen dokumentua da. Bertan, Udalaren misioa, ikuspegia, balioak eta helburu estrategikoak zehazten dira. Hau da, Gobernu taldeak udalerrinari buruz duen

ikuspegiarantz aurrera egiteko estrategikotzat jotzen dituen ardatz nagusiak jasotzen ditu. Era berean, legegintzaldian garatu nahi diren estrategia zehatzak eta zein proiektu edo jardueraildotan oinarritzen diren zehazten dira". Horixe da, laburbilduz, Urnietako Udalak azaroaren 28an plenoan onarturikoa. Xehetasu-

nak Jorge Segurado alkateak eskaini zituen. Bozeramaileei hitza eman aurretik, eskertza adierazi nahi izan zuen alkateak: "Balioan jarri nahi dut etxeko teknikariek egin dugun lanke-ta. Eskerrak eman nahi dizkiet teknikariei. Planaren bidez zer nolako Urnietan nahi dugun azaldu dugu: berdea, bizia, ber-

dinzalea, elkarbizitza osasuntsua garatuko dena, nortasuna izango duena eta polita". Balioak hizpide izan zituen, hala nola, "zintzotasuna, hurbiltasuna, bikaintasuna, konpromiso aktiboa...". Segidan bozeramaileen txanda iritsi zen.

Herme Gonzalez (PSE-EE): "Herritarrak erdigunean jarri nahi ditugu"

"Ardatz estrategikoak biltzen ditu Legegintzaldi planak, udal eskuduntzak baliatuta, zerbitzu ona emateko. Gure zeregin nagusia da herritarren beharrei erantzutea da. Eraginkorrak izatea, eta zintzotasunez jokatzeta. Finean, erdigunean herritarrak jarri nahi ditugu".

Euken Garmendia (EH Bildu): "Gure partaidetzarik gabe atera da plana aurrera"

"Urnietar guztientzat onena bilatu nahi duzue, eta hori eskertu beharrean gaude. Hori bai, gure ekarpenak hor nonbait geratu dira. 2023-2027 planaren txostenean egiletzaz ari zarete, eta udalbatza osatzen dutenen partaidetza nabarmendu duzue. Hori gezurra da. Gure partaidetzarik ez da egon". Alkateak akatsa aitortu eta hori zuzenduko zutela erantzun zion.

Agurtzane Mercader (EAJ-PNV): "Garrantzi handiko plana da"
"Garrantzi handia du Legegintzaldi planak, datozen lau ur-

teetako helburu estrategikoak zehazten direlako bertan. Ekin-tza-ildoak arloburuekin eta teknikariek zehaztu dira, horretatik da garrantzitsua".

Bigarren bueltan, Herme Gonzalez sozialistak bi ñabardura egin zizkion EH Bilduri: "Legegintzaldi plana egitea gobernu taldearen ardura da. Hori bai, azaldu dugun bezala, irekia da dokumentua eta kanalak badi-tuzue parte hartzeko".

Euken Garmendia EH Bilduko bozeramaile eta oposizio-buruak, bere aldetik, beste bi ñabardura egin zituen. EAJ-PNVri zuzenduta, "plan honetan parte hartzeko ez dugu aukerarik izan" adierazi zion. Norabide berean zuzendu zitzaion PSE-EEri: "Eskertzen dizuegu aurrera begira egin duzuen aipamena, baina, gaurkoz, gure ekarpenak ez dira jaso".

Bozketan ez zen ezustekorik izan, eta EAJ-PNVren sei botoak eta PSE-EEren beste biak Legegintzaldi Plana aurrera ateratzeko baliagarriak izan ziren. Zortzi boto horiek gehiengo osoa osatzen dute. Aurkakoak bost izan ziren, EH Bildurenak.

LEGEGINTZALDI PLANA JELTZALEEN ETA SOZIALISTEN ALDEKO BOTOEKIN ATERA ZEN AURRERA

Hiri Antolamendurako Plan Orokor berria aztergai zuen bilera

Astelehen arratsaldean bilera deitu zuen Udalak, HAPO-PGOU delakoaren berrikuntzak aurkezteko

Jon Ander Ubeda URNIETA

Industria eta etxebizitza lurrari dagokion araudia eraberrituko da Hiri Antolamendurako Plan Orokor berrian. Era berean, joko aretoak ikastetxe eremuetatik urruntzeko araua jasoko da. Horiek izan ziren astelehen arratsaldeko herri-bilera irekian aztergai nagusiak.

Jorge Segurado alkateak hitz egin zuen ekitaldiaren hasieran eta, segidan, Nekane Azarola abokatuari hitza eman zion. Hark azaldu zituen berrikuntza nabarmenenak.

Azkarate, Babilonia eta Trankatx eremuak etxebizitzak erakitzeke lursailak dira. Aurre-rantzean, eremu baten garapena % 40ekoa izatea nahikoa izango da beste bi etxebizitza-eremuetan jarduera berriei ekiteko. Finean, portzentaia da aldatzen dena. Zehazki, % 80tik % 40ra.

Industriaguneei dagokionez, prozedura eta proportzio bera aplikatuko da. Zehazki, Miravalles eta Urkain Berri eremuetan.

Joko aretoei dagokienez, eskola eremutik 500 metrora urrun-



Herri-bilera Lekaion egin zuten. Lehen lerroan ziren ordezkariak zuten hiru alderdietako buruzagiak. AIURRI

tzeko proposamena aurkeztu zuten. Hala, horrelako negozio-rik jarri nahi duenak, araudi berria aintzat hartu beharko

du. Bi aztergai horiek izan ziren nagusi Lekaio kultur etxean. Hogei herrikide erakarri zituen hitzorduak. Bertan izan ziren

Jorge Segurado alkatea, eta baita Herme Gonzalez PSE-EEko eta Euken Garmendia EH Bilduko bozeramaileak ere.

Aiurri egoera estuan utz dezakeen erabakia

2019-2023 iraupena duen hitzarmena amaitzeaz da, eta Urnietako Udal Gobernu taldeak Aiurriko diru-partida eguneratzeko eskaera atzera botatzeko asmoa agertu du. Ez hori bakarrik, diru-laguntza ia erdira jaitsiko duela iradoki du

Erredakzioa URNIETA

2024a iristear da eta Aiurri astekariaren ibilbidea hogeigarren urtera iritsiko da. Mugarrria da Urnietako euskalgintzan, tokiko euskarazko prentsan zegoen hutsunea betetzera iritsi zelako. Neurri handi batean Larramendi Bazkunaren eta Inistorra euskaltzaleen ekimenari esker abiatu zen Urnietako albistegia, XXI. mendearen hasiera hartan. Geroztik, Aiurri Beterrri-Buruntzako astekaria egonkortu egin da. Are gehiago, egunerokoan erreferentziazko informazio-gune bilakatu da, Andoainean eta Urnietan. Astekariak tokian tokiko aktualitatea lantzea ekarri zuen, eta, aro digitalean murgildu ahala, Aiurri.eus webgunea orainkaritu da. Urte osoan, informazioa zabaltzen du, aldea ezberdinetan. Hots, hitzez, argazkiz eta bideo bidez.

Astekariak aurrera egiteko gastuei aurre egin behar zaie, eta, horretarako, askotariko diru-iturriak lortu behar dira. Besteak beste, harpidetzak, publizitatea, aparteko zerbitzuak (banaketa-zerbitzua, esaterako) eta erakundeen dirulaguntza. Gipuzkoako Foru Aldundia, Andoingo Udala eta Urnietako Udala dira, hurrenez hurren, diru-laguntza ematen duten era-



Aiurri astekaria. AIURRI

kundeak. Aiurriko Urnietako Udalarekin lau urteko iraupena izan duen hitzarmena amaitzeaz da, eta 2024an kolokan egon daiteke Urnietako Udalak egiten duen ekarpena. Azaroaren 27an elkartu ziren alkatea eta euskara zinegotzia Aiurriko ordezkari Jon Ander Ubedarekin. Azken horrek txosten bat eraman zuen bilerara, hitzarmena eguneratzeko proposamen batekin eta 2023ko memoriarekin. Bertan, bereziki, Udalak egiten duen diru-ekarpena eguneratzeko eskaera egiten zen, Izan ere, 2010etik hona Urnietako Udalak Aiurri bideratzen dion ekarpena ez baita aldatu. Urtez urte, eman duen diru-kopurua berdina da.

Ez da Urnietakoa diru-laguntza izoztuta duen Udal erakunde bakarra. 2022ko udazkenean, Andoingo Udaleko Euskara Sailak ahobatez erabaki zuen ekarpena eguneratzea. Bada, aurrekari horrekin, iritsi zen Urnietako Udalarekin jarritako bilera. Ezustean, EAJ-PNVk zuzentzen duen Euskara sailak atzera bota du Aiurriko izoztuta dagoen diru-partida eguneratzeko eskaera. Eta ez hori bakarrik, urte luzez berdina den kopurua ia erdira jaisteko asmoa agertu zion Seguradok alkateak, ahoz, Ubeda Aiurriko zuzendariari.

Geroztik, Ubedak Urnietako Euskara batzordean hitza hartzeko eskaera formal egin du. Ostegun honetan, iluntzean deituta dagoen Herritargo Batzordearen ostean, Jon Unanue Larramendi Bazkuneko zuzendariak, Koldo Tapia euskaltzaleak eta Jon Ander Ubeda berak ordezkariak hiru alderdi politikoetako ordezkariekin elkartzeko asmoa dute.

Herri eragileekin bilera

Astelehen iluntzean, 35 lagun elkartu ziren Elkarteen Etxean. Urnietako kirol, gizarte eta kultur mailako ordezkariak ziren guztiak. Idatzi bateratu bat osatzea adostu zuten bertan.

Gabonetako emanaldi berezia, ostiral honetan elizan

Ostiral honetan, Urnietako bi ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako ikasleek emanaldia eskainiko dute San Migel elizan.

Gabon kantari ariko dira, arratsaldeko 14:45ean hasiko den emanaldian. LH 3-4 mailatako 114 ikaslek, ikastetxeka banatuta, bina kanta abestuko dituzte. Gauza bera egingo dute, euren aldetik, LH 5-6 mailatako 117 ikaslek.


Argien piztea egingo du Salestarrak Magale ikastetxeak

Abenduaren 18an izango da hitzordua, astelehenarekin, Etxeberri plazan, arratsaldeko 18:15ean hasita

Gabonen atarian, urtero bezala, argien pizte-ekitaldia egingo du Salestarrak Magale ikastetxeak. Dantzariak, trikitilariak, argien pizteaz, kantu-emanaldiez zein bertsoez gozatzeko aukera izango dute bertaratutako urnietar gutiek, eta hori guztia txokolate beroaz lagunduta. Bertan, Lehen Hezkuntzako nahiz Bigarren Hezkuntzako ikasleak izango dira protagonista nagusi.

Hori ez da ikastetxeak antolatutako Gabon festa bakarra izango, izan ere, abenduaren 21ean, "Magale Txikiko Gabon Festa" antolatu baitute. Goizean, Magale HH-LH eraikinean, Olenzeroren bisita jasoko dute. Ondoren, 15:15ean, jaialdia izango da Salestar-Magale eraikinean. Bertan, Gabon kantak abestuko dituzte Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek. Zozketa antolatu du ikastetxeek guraso elkarteak eta txistorrada batekin emango diote amaiera festari.

Era berean, abenduaren 24an, kalera aterako dira ikasleak, herrian barrena, Gabon kantak



Aurreko edizioako argazkia. AIURRI

abesteko asmoz. Goizeko 11:00etan abiatuko dira Plazido Muxika plazatik. Herritar orori luzatu diote gonbidapena.

EKITALDI-SORTA ANTOLATU DU IKASTETXEAK, DATOZEN EGUNETARAKO

bertako
igogailuak | ascensores

BERNATKO ORSTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

IGOGAILUEN MANTENTZE-LANEN ESKAINTZA ZORROTZENA

2.500 bezerak gugan dute konfiantza

943 903 450
bertako.eus

Ekitaldiz beteriko asteburua, Andoainen

Udalak iragarritako ekitaldi-sortaz gain, hitzordu gehiago izango da larunbatean. Esanguratsuen, eguerdiko 12:00tan izango da Plaza Morean. Anabel Fernandez emagina goioan hartuko dute, herritar talde batek antolatutako omenaldi-ekitaldian

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Joan zen azaroaren 22an ezusteko albistea iritsi zen Andoainera. 2017ra arte lanean aritu zen Anabel Fernandez antiguarra zendu zen. Emagin lanetan aritu zen, urte luzez, Andoaingo Osasun Etxean. Arrasto sakona utzi zuen lanean aritu zen artean. Larunbat honetan, eguerdiko 12:00tan hasita, omenaldi-ekitaldia jasoko du Plaza Morean. Herritar talde bat aritu da presaketa lanetan, Anabeli merezitako omenaldia eskaintzeko.

Gabon giroko larunbata

Olentzero eta Mari Domingi etxe guztietara iristeko hamar egunen faltan, Gabonei loturiko hitzorduak biderkatzen ari dira. Eguerdiko 12:00tan hasita, gaztain-jatea antolatu du Urki dantza taldeak Juanita Alkain plazan. Ordu horretan, kalez kale ibiliko da Gora Kaletxiki Txaranga. Goikoplazan hasiko da kalejira, Zumea plazaraino iritsiko dena. Bertan ospatuko da, egun osoz, Yeray Karrikako gaztearen aldeko ekitaldi solidariora. Karpa eta guzti jarriko dute, eta, herriko gizarte eta kultur eragileen artean, hamaika ekitaldi antolatu dituzte.

Ostalaritzari erreparatuta, Gilda eguna ospatuko dute Muga eta Urkiola tabernetan.

Arratsaldean ere ez dira ekitaldiak faltako. 18:00tan hasita, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2024ko egutegiak banatuko ditu Goikoplazan. Hori ere, Andoaingoa bezala, argazki-lehiaketa batean aukeratutako argazkiekin edertu dute.

19:30ean hasita, bi emanaldi izango dira. Batetik, San Martin Tours elizan Joxean Pascualek eskainiko duena. Bestetik, Basteron Ismael Serrano kantariak disko berria aurkeztuko du.

Larunbat honetan, Gabonetan bete-betean murgilduko dira andoaindarrak.



Anabel Fernandez urte luzez aritu zen Andoainen lanean emagin-lanetan. AIURRI

Larunbateko hitzorduak



AZOKA SOLIDARIOA

10:00-19:00 ZUMEA PLAZA

Karrikako auzotarrak burubelbarri murgildu dira Yeray gaztearen aldeko ekimenean.



GORA KALETXIKI TXARANGA

12:00 GOIKOPLAZA-ZUMEA

Mugimendu handiko eguna izango da, eta kaleak alaitzen Gora Kaletxiki txaranga ariko da.



GAZTAIN JATEA

12:00-13:30 JUANITA ALKAIN

Urki dantza taldearen eskutik, dantza, musika, jana, edaria eta, nola ez, gaztainak.



ISMAEL SERRANO

19:30 BASTERO KULTURGUNEA

Aurkezpenik behar ez duen kantaria Andoainera dator disko berriko kantuak aurkeztera.

Ostiralean hasita



OLENTZERO ETA MARIDOMINGI

18:00. ETXEBERRIETA PLAZA.

Gabonak gainean diren seinalea da, ostiralerako iragarritako hitzordua. Klasiko bilakatu da, Bihurri Etxeberrietako Jaiak antolatu duena. Dozenaka haur hurbilduko dira ostiral honetan, Olentzerori eta Mari Domingiri eskaeren gutuna helarazteko. Kotoiki txokolata eta bizkotxoak eskainiko dizkie bertaraten direnei.



ODOL-EMALEEI OMENALDIA

19:00. UDALETXEA.

Gipuzkoako Odol Emaleen Elkartearen Andoaingo Ordezkaritzak, 25, 50 eta 75 aldiz odola eman duten andoaindarrei diploma bana emango die. Aurten, zehazki, bederlatzi lagun izango dira sarituak. Pleno aretoan izango da ekitaldia. Odola ematearen garrantziaz ohartarazteko mezua ez da oharkabea igaroko.



BERE LANEAN BIHOTZA JARRI ZUEN emagina

ANDOAINDARRON AGUR ETA ESKERTZA EKITALDIA ANARI
ACTO DE DESPEDIDA Y AGRADECIMIENTO A NUESTRA MATRONA



ABENDUAK
16
PLAZA MOREAN
12:00



Joxean Pascual San Martin Tours elizaren organoan. AIURRI

Joxean Pascualen emanaldia, larunbat honetan San Martin elizan

Joxean Pascual musika irakaslea eta abesbatzako zuzendaria izateaz gain, organo-jole zaildua ere bada, eta Andoaingo San Martin parrokiako organoarekin kontzertua eskainiko du larunbat honetan, 19:30etik aurrera.

Xabier Lasa ANDOAIN

Organoa da Joxean Pascualen pasioa, eta organo eta honen aurrekaritzat jo daitekeen clavicin musika-tresnekin lotutako ikasketak ematen ditu, egun. Bestalde, Donostiako San Vicente elizan organo-jolea da azken urteetan.

Larunbateko Andoaingo kontzertuan, Bach, Usandizaga,

Frescobaldi, Boellmann eta Garbizi konposatzaileen obrak interpretatuko ditu. Adierazi duenez, organo joleentzat pagotxa da Andoaingo organoarekin jo ahal izatea, "Harribitxia da guttiz. Parisko J. Merklin&Cie etxeak egindako organo erromantikoa da, Gipuzkoan dagoen organorik bikainenetakoa. Berekin kontzertua eskaintzea,

gozamen hutsa da musikari batentzat".

Argentinan bizi zen Nemesio Olariaga Echaide andoaindarrak dohaintzan eman zituen 25.000 pezetei esker ipini zuten organoa, eta 1907ko abenduaren 15ean inauguratu zuten.

Musika-ikasketen arloan titulu ugari eskuratu ditu Pascualek; besteak beste, Orkestren zuzen-

daritzarako goi titulua eta klabezinaren magisteritza. Bestalde, hainbat orkestra zuzendu izan ditu: tartean, Donostiako Talde Barrokoa, Baiona-Euskal Kostaldeko Orkestra Erregionala eta Orkestra Sinfonikoa edo Zumaiako Udal Musika Banda. 2001-2002an, Espainiako Orkestra Nazional Gazteko zuzendari-laguntzaile izateko lehiaketa irabazi zuen.

Abesbatzen munduan ere eskarmentu handia pilatu du Pascualek. Bere ibilbidean, hainbat talde zuzendu ditu Andoaingo abesbatzarekin hasi aurretik: Ad Libitum, la Caja de Pandora, Alaia eta Easoko gazteen abesbatzak, besteak beste.

Alberto Agirre abesbatzako zuzendari, 25 urtez

Donostiarra da Pascual, baina lotura estu-estua eduki du azken 25 urtetan Andoaingo herriarekin eta herriko musikariekin; ez alferrik, Alberto Agirre abesbatzako zuzendaria baita.

Alberto Agirre 1982an sortu zen, eta Fernando Zalakain herriko apaiza izan zuen zuzendari, lehen urtetan. Handik sei urtera hil zen, 1988an, eta orduan Jose Luis Etxeberria eta Begoña Tolaretxipi urte batez aritu ziren hark utzitako tokiak betetzen. Hurrengo urtean, 1989an, orain aurretik hil den Maria Jesus Berasategiren bitartekaritzari esker, Pascual gaztearen ezagutza izan zuten; Andoaingo Alberto Agirre abesbatza gidatzea eskaini, eta hark agudo eman zien baiezkua.

Horrela, Pascualek 1998ko Gabonetan zuzendu zuen Alberto Agirre abesbatza jendaurrean, lehenbiziko aldiz. Orduz geroztik, konta ezin ahala entsegu eta kontzertu partekatatu ditu bertako kantariekin.

Musikari bikaina izateaz gain, musikagintzaren munduan daukan jakinduria eta pedagogiarako trebezia erantsi behar zaizkio Pascuali. Ezaugarri horiek guztiak berezkoa duen umorearekin erabiltzen ditu, Alberto Agirre abesbatzako musikari beteranoak "gobernatzeko". Astero-astero, Olagain musika eskolan hitzordua daukate jarrira, eta ibilbide luzeko abeslariak oso gustura aritzen dira Pascualekin; zuzendariak berak ere aitortzen du sekula ez duela galdu Andoainera etortzeko motibazioa.



Sebastian Bach. WIKIDEPÍA

Larunbateko emanaldiko kantutegia

- Partita sopra l'Aria de Follia (G. Frescobaldi, 1583-1643).
- Nun komm, der Heiden Heiland BWV 659 (S. Bach, 1685-1750).
- Toccata eta fuga BWV 565 (S. Bach, 1685-1750).
- Suite Gothique. Introduction-Choral, Menuet gothique, Priere à Notre Dame, Toccata (L. Boellmann, 1862-1897).
- Doinu euskaldunen soka laukotetik (J.M. Usandizaga, 1887-1915).
- Modéré (organo mold. Josean Pascual).
- Sequentia-Victimae Paschali (T. Garbiza, 1901-1989).

Gidaria eta bere gidaripean dauden ahotsak ondo moldatu dira mende laurden batean, eta, elkarrekin egindako ibilbide hori ospatzeko, ezin modu politagoa izan liteke herriko musika zaleei kontzertua eskaintzea. Hain zuzen ere, Olagain Txistulari Elkartearekin kontzertua ondu dute San Krutz elizan, abenduaren 28an, 20:00etatik aurrera. Gabon Kantekin osatuko dute emanaldia txistulariek eta abeslariak.

Kontzertua San Martin Tours elizak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Andoaingo Udalak lagunduta izango da.

"Lehia motibagarria da"

OLATZ ODRIOZOLA GIPUZKOAKO ZIKLO-KROSEKO TXAPELDUNA

Berrogei urteak beteta, lesio luzea atzean utzita, lehiatzeari ekin zion. Nola, gainera! Gaztetxoak gaintzeko gaitasuna duela ikusita, irabazteko gogoz darrai

Jon Ander Ubeda URNIETA

Eskarmentu handiko txirrindularia dugu Olatz Odriozola Mugika urnietarra. Donostigain taldearen elastikoarekin lehiatzen ari da, eta, aurreko asteetan, Arabako Zuian eta Nafarroako Urdiainen garaipen bana eskuratatu zuen. Abenduaren 10ean Gipuzkoako txapelketan parte hartu zuen, Seguran hain zuzen. Eskuak gorantz zituela helmugaratu zen, markatxo berria ezarri bere ibilbidean.

Lehenik eta behin, zorionak Olatz! Eskerrik asko.

Zein izan zen lehen sentsazioa helmugara iritsi eta eskuak altza zenuen une horretan?

Kristorena, egia esan. Ez nuen espero. Lehia izan zen, baina uste nuen baten bat nire aurretik sar zitekeela. Behin garaipena lortuta, oso gustura! Motibazio erantsia dut oraingoan, gaztetxoak ditut inguruan oso maila ona ematen. Horiekin lehiari aritzea motibagarria da.

Lehia pizgarria da zuretzat, beraz.

Lesio luze bat izan dut aurten. Ez nekien lehiatzeko moduan izango ote nintzen. Erabakia Gipuzkoako Federazioko teknikazio saioetan parte hartu eta gero iritsi zen. Ziklo-kroseko lehen lasterketa iritsi aurretik hilabetea eman nuen errepideko bizikleta gainean. Karrantzako nazioarteko proba izan zen niretzat lehena. Zaila zen postu ona lortzea. Aldiz, Euskadi Open lehiaketa zabaldu zuen Zornotzako proban bigarren helmugaratu nintzen, garailearengandik segundu gutxira helmugaratuz. Lehen lehia bizia hor izan nuen, eta egun hartan lasterketetan murgiltzeko sekulako gogoia sentitu nuen. Behin lehia hori barnean duzula, motibagarria da oso. Lan-egutegia dela-eta, proba guztietan ezin dut parte hartu. Baina Zuian eta Urdiainen irabaztea lortu nuen, eta oso gustura sentitu nintzen.

Eskarmentua alde duzu zuk, Olatz. Lehiakide gazteen aurrean aritzeko,



Donostigain taldearekin lehiatzen ari da urnietarra. ODRIOZOLA

eskarmentua ondo baliatzea garrantzitsua baita.

Hori da nik aldeko dudak aldatzea. Fisikoki, prestakuntza aldetik, aurkari gazteak neu baino gehiago izan daitezke. Ibilbide azkarretan aukera gutxiago edukiko dudala argi dut, atzetik datozen aurkari gazteak errepidean trebatu baitira. Neu, aldiz, mountain bike-tik nator. Teknikoki ere prestakuntza ona dute, hiruzpalau urte dira ziklo-krosean lehiatzen ari direla. Baina teknika eta eskarmentua ondo uztartzen jakin behar da. Egunean bertan, lasterketan bertan, erabaki zuzenak hartzen jakin behar da. Ibilbideak lokaztuta daudenean, itzuliz itzuli, eraldatuz doaz. Proban bertan aldagai horiek analizatzen jakin beharra dago. Horrelakoetan kanpotik emandako aholkuek ez dute hainbeste balio, norberak ibilbidean bertan jakin behar du lasterketara egokitzen. Lasterketak ondo irakurtzen ikasi beharra dago eta, esango nuke, gaurkoz, eskarmentu hori nire aldekoa dela.

Hilabete batzuk atzera egingo bagenu, irudikatzen zenuen zure burua Gipuzkoako txapela jantzita?

Ez. Zornotzako lasterketan sekulako sorpresa hartu nuen, garaipenaren lehiari murgilduta ikusi nuelako nire burua. Zer pentsatua eman beharko lioke txirrindularitza munduan murgilduta dabilenari, nire 40 urterekin hortxe aurrealdean ibiltzea. Nire atzetik datorrenak 16 urte

bete berri ditu. Jubenil mailakoak dira. Bada ni baino gazteagoa den lehiakiderik, baina galdera honako hau da: non daude 23 urte azpikoak eta elite mailakoak? Zer pentsatua ematen du, horrek. Eta ez da soilik emakumezkoen kasua. Gizonezkoen mailan antzekoa gertatzen ari da. Belau-naldi oso bat galdu dela dirudi. 23 urte azpikorako jauzia oso handia da. Gehientzat zaila da maila berriari egokitzea. Askok lehiatzeari uzten diote eta master 30 mailako lastekertetan agertzen dira berriro. Urteak galdu dira, bidean. Gizonezkoetan eta emakumezkoetan errepikatzen den faktorea da. Maila, beraz, baxua da. Junior mailakoei esaten diet maila ona erakusten dutela, baina maila handiagoko lehiakideekin trebatzea falta zaie. Beren jomuga bakarra Olatz Odriozola gaintzea bada, kirol maila hobetzetik urrun daude. Ni gaintzea ez da nahikoa. Hemendik kanpo maila ona eman nahi badute, lehiakortasun handiagoa behar dute. Zorionez, Gipuzkoan hiruzpalau urteotan egindako lanari esker, emaitzak iristen ari dira. Garapen horrekin jarraitu beharra dago.

Zein lasterketetan parte hartuko duzu hurrengo asteetan?

Asteburu honetan Beran ariko naiz, Nafarroan. Eta, abenduaren 30ean, Euskal Herriko txapelketa ospatuko da Abadiñon. Han izango naiz, asmo hori daukat behintzat.

HILAREN 30EAN, ABADIÑON, EUSKAL HERRIKO TXAPELKETAN PARTE HARTUKO DU

San Silbestre, Urnietan, Poxta Zaharren eskutik

Boluntarioak behar dituzte, egunean bertan lasterketa solidarioa gauzatzen laguntzeko

Erredakzioa URNIETA

Hiru urteren ostean, hemen da, Poxta Zaharren eskutik, berriro ere San Silbestre lasterketa herrikoia. Abenduaren 31n izango da hitzordua, arratsaldeko 16:00etatik aurrera. Bi kategoria izango dira, haurrena eta helduena. Izen-ematea egunean bertan egingo da, korrikaldia hasi aurretik. Ayestaranek, Londonen laguntzarekin, egindako oroigarria eskuratuko dute helduen kategoriako lehen sailkatuek. Dena dela, askotariko produkturen zozketa izango da, herriko merkatariek babestuta, parte hartuko duten bizilagunen artean. Lasterketaren ondoren, ospakizun-giroari jarraipena emango diote antolatzaileek, Frontoi tabernan.

Adi! Boluntarioak behar dituzte egunean bertan laguntzeko. Interesa izanez gero, jarri harremanetan 634 410 381 telefono zenbakira deituta edo mezu bat bidalita.

Urte zaharreko lasterketa Andoainen

"Lasterka Itzuli" gisa ezaguna den lasterketa iristea da. Abenduaren 31n, goizeko 11:30ean hasita, partaidetza handia duen lasterketa egingo da. Izen-ematea dagoeneko zabalik dago. 5,3 kilometroko luzera duen ibilbidea Bastero eta Etxeberrieta artekoa izango da. Izena emateko aukera zabalik dago, baina soilik on line bidez egingo da. Kronoak webgunearen bitartez. Egunean bertan ezingo da izena eman. Antolaketak festa giroa sustatzeko mozorrotuta agertzera gonbidatu nahi ditu lasterkariak: "Animatu eta etorri mozorrotuta ondo pasatzea, urteko azken egunean. Bertan itzarongo zaituztegu".



Urnietako
udala



Urnieta eta Axular arteko partida igandean izango da, eguerdiko 12:00tan hasita. AIURRI

Senior mailako taldeen partidak, asteburu honetan

Aurreko asteburuan atsedenaldia izan ostean, eskubaloia eta futbol ligak berrabiarazi dira

Erredakzioa URNIETA

Eskubaloian, Leizaran Lanbroa taberna taldea Euskadiko 1. Mailako partida jokatu du Allurralden, sailkapenean atzean duen Zuazo taldearen aurka. Launa garaipen dituzte bi taldeek. Pare pare dabilta, beraz, ligan. Gipuzkoako Ligan, Urnietako neskek Donibanen ariko dira.

Futbolean, Gorengo mailan, Urnietak Axular Lizeoa taldea jasoko du etxean. Igandean hasiko da partida, eguerdiko 12:00tan hasita. Sailkapenean gora egiteko aukera proposa dute. Euskalduna, berriz, Billa-bonaren zelaian ariko da.

Nesketan, Urnieta Zestoa taldearen zelaian ariko da.

DEIALDIA

ZANPATUZ

URNIETA

2024rako federatu-txartela

2024ko federatu-txartelak tramitatzeko epea irekita dago. Iaz bezala, aurreko ere tramitazioa Zanpatuz.eus bidez egin ahal izango da. Bertan, mendizalearen datuak sartu, aukeratu duten estaldura eta gehigarriak adierazi eta txartel bidez egin beharko da ordainketa-modua. Tramitazio lanak erraztu asmoz, hilabete behin egingo dira federazioko tramiteak. Abenduari dagokionez, abenduaren 23a izango da tramitazioa egiteko azken eguna. Datorrena, 2024ko urtarrilaren 15aren bueltan.

Zanpatuzek ohar zehatza helarazi die kideei: "Gogoratu urtarrilaren 1etik federatuta egon nahi baduzue, zuen datuak bidaltzeko azken eguna abenduaren 23a izango dela. Ez utzi azken unerarte eta federatu zaitez!".

Finalera sailkatzeko aukera du Ansak

Urriza eta Azpiroz kontra ariko da Ansa, Martirenarekin batera, larunbat honetan

Erredakzioa URNIETA

Binakako erremonte txapelketa azken txanpara iritsi da eta Ansa-Martirena bikoteak finalera iristeko bi bide ditu. Zuzenena, larunbat honetako partida idabaztea da (16:30, Galarreta). Horretarako ligaxkan lehen postuan diren Aldabe-Barrene-tea IV irabazi beharko diete. Galduz gero, halere, finalaurrekoa jokatzeko aukera izango dute. Aurkariak dagoeneko zain dituzte. Eta ez nolana hikoak: Urriza eta Azpiroz. Emoziorik ez da faltako.



HERRI KIROLAK IRAZOKI

Hiru edizioetatik bitan garaile

Abenduaren 8an Nerea Arruti urnietarrak txapel berria eskuratu zuen Bizkaia Frontoian, Sherpa.ai aizkolari txapelketa nagusia aise irabaziz. Karmele Gisasola *Zelai III* eta Malen Barrenetxea aurkari zituen, eta erraz nagusitu zitzairen. Bi minutu pasatxoko aldea atera zion txapeldun-ordeari. Sherpa.ai Aizkolari Txapelketaren palmaresa: 2021ean Karmele Gisasola *Zelai II*; 2022an eta 2023an Nerea Arruti.



ANDOAINGO

Junior mailako txapelduna

Irati Aranguren Andoaingo Txirrindulari Eskolako gaztea ibilbide oparoa osatzen ari da. Ziklo-krosean Gipuzkoako txapeldun berria da, junior mailan (argzkian, erdian). Seguran jokatu zen lasterketa berdinean Xabat Zuriarrain eta Markel Tamayo gazteek ere maila ona eman zuten.

ADARRARA GAUEZ
besabitik abiatuta eta ilargi betea aprobetxatuz
abenduaren 22

17:00an hasiko da, 18:00an hasiko da, 19:00an hasiko da
17:30an hasiko da, 18:30an hasiko da, 19:30an hasiko da
18:00an hasiko da, 19:00an hasiko da, 20:00an hasiko da

DOMINGOAGARRIA: LINTERNA, FRONTALA, NEGURKO ARROPA (eguzkiaren aurkako)

animatu eta azaldu!!!





Eider Mendoza, ahaldun nagusia, eta Irune Berasaluze, Gobernantza diputatua, 2024ko egutegia eskuan dutela.

Foru Aldundiak 2024ko egutegiaren 40.000 ale banatuko ditu Gipuzkoa osoan

Opari itxurako edukiontzi erraldoi bat lurraldeko eskualde guztien barrena ibiliko da eta herritarrak egutegiaren bila irribarre batekin hurbiltzera gonbidatuko ditu.



Pablo Perez, lehiaketako irabazlea, eta gainerako hamabi aukeratuak, Aldundiko ordezkariekin, sari banaketa ekitaldian.

Opari itxurako edukiontzi erraldoi bat Gipuzkoa osoan barrena ibiliko da, Gabonetako espiritua zabaltzeko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero berariaz antolatzen duen argazki lehiaketako argazkiekin osatutako egutegia banatzeko.

2024ko egutegiaren leloa *Gipuzkoa kirolzale* da. Kontzeptu horrek balioa eman nahi dio lurraldeak arlo horretan duen jarduerari, Gipuzkoaren kirol espirituan laguntzen duten pertsonak, klubak, federazioak eta taldeak ikusarazteko. Guztira, 479 argazki jaso dira, eta Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak hamahiru hautatu ditu: garailea, azalean jartzeko; eta hamabi hilabeteetarako beste argazki bana.

Abenduaren 16an Andoainean

Abenduaren 13an hasiko dira egutegia banatzen, Donostian, eta, ondoren, abenduaren 23ra arte edukiontzia udalerrri hauetan barrena ibiliko da: Errenteria, Irun, Andoain, Tolosa, Beasain, Urretxu, Eibar, Bergara, Azpeitia eta Zarautz. Hain justu ere, Andoainera, abenduaren 16an helduko da. 18:00etatik aurrera, Goikoplazan banatuko dira egutegiak.

Goizero, aipatutako egunetik aurrera, opari edukiontzia udalerrri horietako erdigunean azalduko da, herritarren artean interesa pizteko, eta 18:00etan zabalduko dute. Ordu

horretatik aurrera jaso ahal izango dira egutegiak. Opari edukiontzia barruan, gainera, Aldundiak testuinguru horretan abian jarri duen kanpaina bat aurkituko dute. Bertan, irribarre egiteko gonbidapena egiten da, eta keinu horrek bakoitzaren osasun psikologikoan dituen onurak aipatzen dira, *Zure irribarre oparirik onena* lelopean.

Pablo Perezen irudia, azalera

Pablo Perez urretxuarrak irabazi du Aldundiak egutegia osatzeko egindako argazki lehiaketa eta, ondorioz, haren argazki harrigarria jaso du azalean. Aurtengo lehiaketak gipuzkoarren kirolzaletasuna eta balioak erakustea izan du helburu eta urretxuarraren argazki irabazleak lokaztutako jokalaritza taldea eta haur bat ditu protagonista.

Iruñe Berasaluze Gobernantza diputatuak sari banaketa ekitaldian azaldu zuenez, 479 argazki aurkeztu dira lehiaketara, denetariko kirol praktitak eta kirolariak erakusten dituztenak. Eta, hain justu, horixe bilatu dute aurtengo deialdian, Berasaluzeren esanetan: "Gipuzkoarren kirolzaletasuna erakustea, bizimodu aktibo eta osasuntsu baten alde egiten dugun apustuari balioa emanez eta kirolaren bitartez elkarbanatzen duguna ospatuz".

Horrekin batera, honako hau gehitu zuen: "Natura da beste protagonista, argazkietan oso ondo ikusten baita gure mendi-itsasoen edertasuna eta horietaz gozatzeko gipuzkoarren zaletasuna, urtaro guztietan".

Pablo Perezekin batera, hauek dira aurtengo lehiaketaren irabazleak: Iñaki Oregi (urtarrila), Lazaro Gonzalez (otsaila), Ander Morea (martxoa), Jose Venegas (apirila), Iosune Negredo (maiatza), Lander Tolosa (ekaina), Carlos Mediavilla (uztaila), Mikel Cavero (abuztua), Arbil Iciar (iraila), Alberto Beloki (urria), Aitor Agirrezabal (azaroa) eta Gurutze Ariznabarreta (abendua). Guztira, 4.000 euro banatu dira saritan, 1.000 euro irabazlearentzat eta 250 euro gainerako 12 aukeratuarentzat. Urtero bezala, epaimahaia Gipuzkoako Argazkilaritza Elkarteak kideek eta Aldundiko ordezkariak osatu dute.

40.000 egutegi banatuko dira

Ekimen horrekin, Aldundiak 40.000 egutegi banatuko ditu lurralde historiko osoan.

Ildo horretan, gainera, Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak Donostiako egoitzan abenduaren 18tik urtarrilaren 5era erakusketa bat izango du ikusgai, egutegiaren edizio honetarako jasotako hogeita argazkirik onenekin –San Juan kalea 27–.



2024

ZATOZ

ALDUNDIAREN EGUTEGIAREN BILA

Irribarre batekin

Abenduaren 16an jaso dezakezu
18:00etatik aurrera
Andoaingo Goikoplazan.

Eta abenduaren 18tik urtarrilaren 5era
Gipuzkoako argazki-elkartearen erakusketan.




HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 14

ANDOAIN Erakusketa

'Secundino Etxeberria: Argazkilaria Santikortasuna'.
Abenduaren 29ra bitarte, zabalik. Bastero, erakusketa-gela.

URNIETA Lehiaketa

XXX. edizioan parte hartzeko deialdia zabalik dago. Haur eta gazte mailako lehiaketa da.
Informazioa: Urnieta.eus.

ANDOAIN, URNIETA Korrika

Korrika martxoan abiatuko da. Arropa eta produktu ugari dagoeneko salgai daude.
Euskaltegiak.

OSTIRALA 15

ANDOAIN Gabonak

Olentzero eta Mari Domingi eskutitzak jasotzen egongo dira.
18:00, Etxeberrieta plaza.

ANDOAIN Odol-emaileak

Gipuzkoako Odol Emaileen Andoaingo Ordezkaritzak, 25, 50 eta 75 aldiz odola eman duten andoaindarrei diploma bana emango die.
19:00, Udaletxea.

LARUNBATA 16

ANDOAIN Elkartasun-festa

"Andoaindarrak Yerairekin bat" izenburupean.
10:00, Zumea plaza.

**ANDOAIN Gaztain-jatea Urki dantza taldearen eskutik**

Euskal dantzak, Malkogarriyak taldearen emanaldia eta gaztainak gabon giroko ospakizunean. Bestalde, gaztain-erreak, txorizo egosia, freskagarriak eta sagardoa dastatzeko aukera izango da.
Abenduak 16, larunbata. 12:00-13:30. Juanita Alkain plaza.

ANDOAIN Omenaldia

Anabel emaginak arrasto sakona utzi zuen andoaindarren artean. Omenaldi-ekitaldia antolatatu du herritar talde batek.
12:00, Plaza morea.

ANDOAIN Txaranga

Gora Kaletxiki txaranga udalerriko kaleak bere musikaz alaituko ditu.
12:00, Goikoplaza-Zumea plaza.

URNIETA Mus txapelketa

Santa Kruz elkarteak antolatuta.
16:00, Santa Kruz elkartea.

ANDOAIN Kontzertua

Ismael Serrano kantari ezaguna.
19:30, Bastero.

ASTELEHENA 18

ANDOAIN Ipuin kontaketa saioa

Lur ipuin kontalaria.
17:00, 2-4 urtekoentzat. 17:50, 5-7 urte. Bazkardo eraikina.

ASTEARTEA 19

URNIETA Entsegua

Kantazaun taldearen entsegua.
18:30, Kiroldegiko boxa.

ANDOAIN Irakurketa kluba

17:00, 2019an jaiotakoentzat. 18:00, 2015-2018ra jaiotakoentzat. 17:00, 18:00. Udal Liburutegia.

Gozogintza-tailerra Eteneta elkarteak, AEKren eskutik

Urnietako Zilegi Eskolak saio berezia prestatu du abendurako: "Gabonetako gozogintza: turroiak eta polboroiak". Abenduaren 14an izango da hitzordua, arratsaldeko 18:30etik 20:30era, Eteneta elkarteak. Saioa doakoa da, baina lekuak mugatuak direnez, komeni da izena ematea. Hona hemen bideak: zilegieskola@aek.eus eta 662 33 87 47.


Jostailu bilketa Kontseilu Sozialistaren eskutik

Buruntzaldeako Kontseilu Sozialistak jostailu bilketa martxan jarri du. Bilketan parte hartu nahi duenak abenduaren 20ra bitarte Ernaitzara bere jostailuak eraman ahalko ditu. Era berean, datorren abenduaren 19an postua jarriko du Kontseilu Sozialistak Makaldegiko merkatuaren inguruan, 11:00tatik 13:00ak bitarte.

Gilda pintxoak dastatzeko aukera, larunbatean

Gilda egunaren edizio berria iristear da. Gipuzkoako ostalaritza eremu zabalean ospatzen da, baita Andoainen ere. Abenduaren 16an, larunbatearekin, Zumea plazako Muga eta Kale Nagusiko Urkiola tabernetan dastatu ahal izango da, euro bateko prezioan. Bederatzigarren ediziora iritsi da "Gilda eguna", tradizio handiko pintxoan oinarrituta.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

Wonka
Ig, 17. 17:00, 19:30.
Asti, 18. 19:30, 22:00.
Ocho apellidos marroquis
Lar, 23. 17:00,

19:30, 22:00.
Asti, 25. 19:30, 22:00.
Astr, 26. 19:30.

Matria
Astz, 27. 19:30.

La navidad en sus manos
Lar, 30. 17:00, 19:30, 22:00.



SINOPSISIA

**Wonka**

Zuzendaria: Paul King. **Aktoreak:** Timothee Chalamet, Sally Hawkins, Rowan Atkinson, Olivia Colman, Jim Carter... **Herrialdea:** Britainia Handia (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Fantasia. **Iraupena:** 115 min.

Willy Wonkaren hasierako urteak

"Charlie y la fabrica de chocolate" pertsonaia bikainean oinarrituta, munduko asmatzaile, azti eta txokolategilerik handiena Willy Wonka maitatua nola bihurtu

zen kontatzen du. Ez du erraz izan behar Johnny Deep handia burutik kentzea. Timothee Chalamet aktore gazteak, ordea, kritika onak jaso ditu.



andoainDARRA
euskaraz

Argazki-lehiaketako saridunak

Argazkian ageri dira Andoaingo Udal egutegi berriko argazkien egileak. Artea ardatz hartuta, lehiaketa antolatu zuen Udalak eta astearte iluntzean egin zuten sari banaketa ekitaldia. Irabazleak: Urtarrila (Juan Pablo Fernandez Ramirez), otsaila (Julian Guerrero Viejo), martxoa (Ruben Caceres Delgado), apirila (Unai Peñalvo Arregi), maiatza (Angel Carrasco Errazkin), ekaina (Asier Ruiz Izquierdo), uztaila (Manuel Casellas Soria), abuztua (Nerea Hernandez Perez), iraila (Nahia Rodiño), urria (Aitor Gonzalez Gonzalez), azaroa (Iosune Marin Asensio) eta abendua (Jose Angel Amuchastegui Esnaola).



AIURRI

"Bidez bidez" zerbitzua aukera berriekin osatu dute

Ordutegia zabaltzeaz gain, adinekoen zaindariak ere zerbitzuaz baliatu ahal izango dira

Erredakzioa URNIETA

BIDEZ BIDE zerbitzua adinekoei eta mugikortasun murriztua duten pertsonen zuzendutako zerbitzua da, baita udalerraren kanpoaldean pertsonen zaintza lanetara joaten diren zaintzailentzat ere. Ordutegia, gainera, luzatu egin dute. Herrigunetik urrun bizi diren adineko askorentzat zaila da herrigunear dauden zerbitzuetara gerturatzea. Udaletxea, Osasun Etxea, Eguneko zentroa... zerbitzu horiek guztiak herrigunear daude eta herritar asko kilometro batzuta

tara bizi dira. Garraio zerbitzu berriarekin distantziak sortzen duen ezintasuna gainditu nahi da. Hori da helburu nagusia: adinduen autonomia maila handitu eta herrigunera hurbiltzeko zailtasunak saihestu nahi dira.


Zerbitzu berria

Behemendi Landa Garapeneko eskualde mailako elkarteak, Andoaingo Udalarekin lankidetzan abiatu du.

- Telefonoa: 626 13 69 76.
- Ordutegia: 07:30-13:30.
- Zerbitzua: Lanegunak.

Mus txapelketa Urnietan

Larunbat honetan (abendua 16) mus txapelketa jokatu da Urnietako Santa Kruz arrantzale eta ehiztarien elkartearen. Izen-ematea 15:30ean hasiko da eta txapelketa, berriz, 16:00tan. 4 erregetara jokatu da, 6 hamarreko eta 3 ustelekin. Lehen lau sailkatuentzat sariak izango dira, baina kontsolazio faseko finalistentzat ere. Prezioa, bikoteka, 30 eurokoa da.



AIURRI



AIURRI

Gabonetako kantuen entsegua

Aurreko asteartean egin zuten lehen entsegu berezia, Gabonetako kantu-errondari dagokiona. Kantazaun taldeak bigarren entsegua deitu du datorren abenduaren 19rako. 18:30ean jarri dute hitzordua, Urnietako kirodegiko boxa deritzon gunean. Entseguetara agertzeko premia agertu zuten taldeko arduradunek, abenduaren 3an egin zuten kantu-errondan.

Antia literatur lehiaketaren edizio berria aurkeztu dute

Urnietako Udaleko euskara sailak On Manuel Antonio Antia literatur lehiaketaren XXX. edizioa aurkeztu du. 12 urtetik beherakoak haur mailan lehiatuko dira, eta 12-16 urte bitartekoak, berriz, gazteen mailan. Sari dotoreak iragarri dituzte. Lanak aurkezteko epea martxoaren 15ean amaituko da. Xehetasunak Urnietan.eus gunean aurki daitezke.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak Izaro
Dagoeneko 7 urte!!
Nola pasatzen den denbora! Askok maite zaitugu! Muxuak aitatzko, amatxo eta Amets!



ANDOAIN
Zorionak Ane
Abenduaren 14an 14 urte bete dituzu. Earki ospatu dugu elkarrekin. Besarkada handi bat etxekoan partez.



ANDOAIN
Zorionak Xune
Abenduaren 22an Adeik 11 urte beteko ditu. Zorionak etxekoan partetik. Segi orain bezain jator eta alai! Muxuak.



ANDOAIN
Zorionak Xune
Xunek 11 urte, hamaika!, beteko ditu hilaren 28an. Ederki pasako dugu urtebetetze-festean. Muxu handia etxeko guztien partetik.



ANDOAIN
Zorionak Enara
Enara Arevalo Garcia abenduaren 20an 9urte beteko ditu eta primeran ospatuko dugu. Zorionak polita eta segi beti bezain irrifartsu eta alai. Askok maite zaitugu

ODOL-EMAILEAK

HITZORDUA

Abenduak 15, ostirala.
19:00. ANDOAIN, pleno aretoa. Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearen Andoaingo Ordezkaritzak, 25, 50 eta 75 aldiz odola eman duten andoaindarrei diploma bana emango die. Aurten, zehazki, 9 lagun izango dira sarituak.

ESKELA

M^a Jesus BERASATEGI GALPARSORO

Abenduaren 6an hil zen, 79 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.



Bere ahizpak: Arantxa (†) eta Joxe M^a, Rosarito (†) eta Juan Miguel (†), Juli (†) eta Antton; ilobak: Mikel (†) eta Maria, Arantza, Iñaki, Ibai, Estibaliz eta Gorka, Joseba eta Irati; iloba txikiak: Haizea, Araitx, Bidatz, Orhi; eta gainerako ahaideak.



Andoaingo, 2023ko abenduaren 7an



ABENDUAK 23. LARUNBATA

17:30 BERRASOETA PARKEAN HARRERA

KALEJIRA EGAPE DANTZA TALDEA ETA MUSIKA ESKOLAKO TRIKITILARIEKIN
PLAZA-DANTZAK TXANBOLIN ETA ANABASEKIN.

19:00 SAN JOAN PLAZAN

EMAIUZU GUTUNA OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRI
GAZTAINAK ERRE ARTIAN... TXIPLI TXAPLA PUN!!!